



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,  
XXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA  
EZESTEA EBAZTEN DUENA, ARABAKO XAKE FEDERAZIOKO DIZIPLINA  
BATZORDEAK ETA EUSKAL FEDERAZIOAREN APELAZIO BATZORDEAK  
BERE IDAZKIEI ERANTZUNIK EMAN EZ DIELAKO.**

---

**Espediente-zenbakia: 39/2017**

### **AURREKARIAK**

**BAKARRA.-** XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Arabako Eskolarteko Txapelketen arbitro nagusiak, honako hau zioen eskaera bat aurkeztu zuen postetxean, 2017ko maiatzaren 17an:

*«Otsailaren 3an, Arabako Xake Federazioko Diziplina Batzordeari bideratutako salaketa ofiziala aurkeztu nuen, idatzizko ziurtagiri bidez, Eskolarteko Txapelketen arbitro nagusi gisa nuen kargutik kentzeagatik eta horretarako argudioak ez adierazteagatik. (...)*

*Agiria bidali eta 30 egunetara Arabako Xake Federazioko Diziplina Batzordeko epailea nirekin harremanetan jarri ez zela ikusita, martxoaren 10ean Euskal Federazioaren Apelazio Batzordean erregistratutako ziurtagiri idatzi bat bidali nuen. Era berean, ez dut jakinarazpenik jaso eskaera jaso eta hurrengo hamar eguneko epean. (...)*



*Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.3. artikulua arabera, federazio guztiek nahitaez erantzun behar dute, eta bi federazioek idazkiak jaso dituztela jakinik, posta ziurtatu bidez bidali baintuen.*

*Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.1.a artikulua eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak ezartzen dituela ikusita –Arabako Xake Federazioaren jarduketa, kasu honetan–, zuzenbideko oinarriak behar bezala arrazoitu behar dira eta kargugabetze hori ez da oinarritzen Arabako Xake Federazioaren arau bakar batean, ezta Xakeari buruzko Legeetan edo beste xake- edo administrazio-arau batzuetan ere.*

*Komunikazio-arazo hori ebazteko Arabako Xake Federazioarekin harremanetan jar zaitezte eta kargua kendu izanaren arrazoiak argitu diezazkizuzuela eskatzen dizuet, hori sortzen ari zaidan babesgabetasuna dela eta.»*

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) ekainaren 11ko Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak 138. artikuluan, eta aipatutako batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak 3. artikuluan emandako eskumenak ditu.

Diziplina arloan, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua eskumena aitortzen diote Kirol Justiziako Euskal Batzordeari «kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertze eta ebazteko».



**BIGARRENA.-** Kasu honetan, eskatzaileak ez du aurkeztu Arabako Xake Federazioaren Diziplina Batzordeak gauzatutako kargugabetze-jarduketaren kontrako errekurtsorik, eta zera eskatzen dio KJEBri, *Arabako Xake Federazioarekin harremanetan jar daitezela, komunikazio-arazoa ebatzi eta kargua eten izanaren arrazoiak argitzeko.*

**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak eskatzen duen bitartekaritza hori ez da KJEBren eskumena.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

### **EBAZTEN DU**

**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak 2017ko maiatzaren 17an aurkeztutako idazkia ezestea, Arabako xake-federazioaren diziplina-batzordearen eta euskal federazioaren apelazio-batzordearen aldetik erantzunik jaso ez duela eta.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.



Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 29a.

**JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea